# Administrazio publikoetan ere gutxieneko soldata eta langile publikoen soldata eta lan baldintzak hemen erabaki

## LGS 1.500€

## Soldatak hobetu, aberastasuna banatzeko

**Martxoaren 17an Greba Orokorrera goaz** Hego Euskal Herrian, gutxieneko soldata propioa ezartzeko eta soldatak hobetzeko. Euskal Herrian gutxieneko soldata propioa ezartzeko, eta, oro har, soldatari dagozkionak hemen erabaki ahal izateko.

LGS Lanbidearteko Gutxieneko Soldata hemen ezartzeari ateak itxi nahi dizkigute EAJ, PSE-PSN, Confebask eta CENek. Langile publikoek ondo dakigu hori zer den, hamarkadak baitira arlo politikotik ezezkoa ematen zaiola gure lan baldintzak hemen erabakitzearen aldeko aldarrikapenari. Administrazio publikoentzat lan egiten dugun langileon kasuan, beraz, hiru aldarrikapen oso zehatz lortzeko funtsezkoa izango da greba:



» Langile publikoen soldatari eta enpleguari dagozkionak hemen erabakitzeko, Euskal Herrian. Hemen adosteko, Madrilgo mugak gainditu eta EAJren eta PSE-PSNren inposaketak deusezteko.
» Langile publikoak direnek, gutxienez, 1.500€-ko gutxieneko soldatak izateko. Gaur-gaurkoz, EHUko ikertzaile predoktoralak, EHUko ordezko irakasle partzialak eta Nafarroako udaletako enplegu babestuko proiektuetako langileak ez dira 1.500€-ko gutxieneko soldatara iristen.
» Administrazio publikoek azpikontratatzen dituzten langileek, publikoak direnak, gutxienez 1500€-ko gutxieneko soldatak izateko.

Krisian zein hazkunde aldian egon, patronalak irabaziak handitu ditu langileok pobretzearen kontura. Desberdintasun sozialak areagotu egin dira; bereziki, emakume*, gazte eta langile migranteen artean, eta gutxi batzuen etekinak langileon lan eta bizi baldintzen gainetik jartzen dituzte. Egoera hori erabaki politiko eta enpresarialen ondorio da; aberastasuna era justuagoan banatu behar da. Jaurlaritza zein Nafarroako Gobernua patronalaren aldeko politika publikoak egiten ari dira, eta aberastasunaren birbanaketarako bideak oztopatzen dituzte: ez da zerga politika progresiborik bultzatzen eta ez da patronala interpelatzean soldatak hobetzeko. Euren langile publikoak eta azpikontratatuak ere prekarizatzen dituzte, adibidez, erosahalmena ez bermatuz, patronalaren estrategia kapitalista berean daudelako.

**Soldata duinak denontzat**
Bizitza garestitu da, baina soldatak ez dira neurri berean igo. Ondorioz, langileok erosahalmena galdu dugu. 2013-2023 artean industriako enpresen irabaziak %53,4 igo dira, eta KPIa, aldiz, %24,4; soldatak, orokorrean, %16,9 bakarrik. Langile publikook, batez

**M17 GREBA OROKORRA**

**LAB**
EUSKAL SINDIKALISMO ERALDATZAILEA

beste, erosahalmenean % 20ko galera izan dugu (EAEn %20tik gorakoa eta Nafarroan %19tik gorakoa).

**Soldatak hobetu, soldata guztiak gorantz bultzatzeko**

Bizitzaren garestitzearen aurrean, gainera, kapitalak langileon arteko arrakaletan sakontzen jarraitzen du. Soldata arrakala da horren adierazleetako bat, eta, ondorioz, langile asko pobrezia egoeran betikotzen dituena. Gaur egun, 307.000 langilek 1.500€ baino gutxiago kobratzen dute; gehienak emakumeak* eta langile migratuak dira.

Kapitalismoa patriarkala eta koloniala da; irabaziak pilatzen jarraitzeko, generoagatik eta jatorriagatik arrakalak sortzen ditu. Baita adinagatik ere. LGS arrakala horiek murrizteko tresna da. Gutxieneko soldata igotzen denean, soldata guztiek egiten dute gorantz, patronalak soldatak debaluatzeko duen estrategiari mugak ipiniz. Borroka honek pribatizatutako zerbitzu publikoetako langileen soldaten ekiparazioa ere ekarri beharko luke, publifikaziorako bidean. Kapitalak zatitu nahi duen langile klasearen estrategiaren aurrean, klase elkartasuna da gurea; izan ere, zuzenean edo zeharka, Greba Orokorra langile guztion onurarako izango da.

**Administrazio publikoarentzat lan egiten duen orok, gutxienez, 1500€-ko soldata**

Guk, ordea, lan berdina egiteagatik soldata berdina defendatzen dugu, eta administrazioek gutxi batzuk aberasteko azpikontratazioaren bitartez bultzatzen duten prekarizazioaren, pribatizazioaren eta zerbitzu publikoen ahultzearen kontra borroka egiten dugu. Horregatik, administrazio publikoarentzat lan egiten duen orok, gutxienez, Euskal Herriko errealitatera egokitutako gutxieneko soldata jaso behar du, langile zuzena izan edo ez: 2026rako, 1.500€-ko soldata gordina 14 pagatan.

» Administrazio publikoak azpikontratatutako eremuan asko dira 1.500€ baino gutxiago kobratzen dutenak: Enplegu Zentro Berezietako langileak, garbiketakoak, telemarketinekoak, gimnasioetakoak, lorezainak, uraren kudeaketakoak edo kontsultorietakoak, besteak beste.

**Inposaketa eta murrizketa gehiagorik ez! Soldatak hemen erabaki**

2010az geroztik, soldatetan murrizketak, izozteak eta inposizioak bizi izan ditugu administrazio publikoetan.

Langile publikook badakigu, ordea, soldatak eta enpleguari dagozkion gaiak hemen erabakitzea borondate politiko kontua dela; beraz, soldata eta enpleguari dagozkionak hemen erabakitzeko aldarria da gurea. Gure lan hitzarmenen negoziazioetan ez dugu blokeo gehiago onartuko. Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak Madrilgo inposizioak hemen ezartzeari utzi eta gutxieneko soldataren eskumenak eskuratzeko borroka ere bada hau, burujabetza handiagoa behar baitugu lan eta bizi baldintzak hobetzeko.

**Zabaldu mezua, antolatu eta parte hartu. Langileon batasunean dago indarra!**

# M17 GREBA OROKORRA

M17 GREBA OROKORRA

LAB
EUSKAL SINDIKALISMO ERALDATZAILEA

# Decidamos aquí el salario mínimo, el sueldo y las condiciones laborales de las y los empleados públicos

## LGS 1.500€

## Mejorar los salarios para repartir la riqueza

**El 17 de marzo vamos a la Huelga General en Hego Euskal Herria** para establecer un salario mínimo propio y mejorar los salarios; para establecer un salario mínimo propio en Euskal Herria, y, en general, para poder decidir aquí las cuestiones que corresponden al salario.

PNV, PSE-PSN, Confebask y CEN quieren cerrar las puertas a la implantación del Salario Mínimo Interprofesional. Las y los trabajadores públicos sabemos muy bien lo que es eso, porque hace décadas que desde el ámbito político se rechaza la reivindicación de decidir aquí nuestras condiciones laborales. En el caso del personal que trabajamos para las administraciones públicas, por tanto, la huelga será fundamental para conseguir tres reivindicaciones muy concretas:



» Decidir aquí, en Euskal Herria, lo relativo al salario y al empleo de las y los empleados públicos. Para consensuarlo aquí, para superar los obstáculos que se ponen para ello desde Madrid y anular las imposiciones del PNV y PSE-PSN.
» Para que las y los empleados públicos tengan un salario mínimo de 1.500€. A día de hoy, el salario de las y los investigadores predoctorales y profesorado sustituto a tiempo parcial de EHU no alcanza dicha cifra, y tampoco el salario del personal de proyectos de empleo protegido de los ayuntamientos de Nafarroa.
» Que el personal que sea subcontratado por las administraciones públicas y que también consideramos personal público tenga un salario mínimo de 1.500€ .

Tanto en tiempos de crisis como de crecimiento, la patronal ha aumentado sus beneficios a costa del empobrecimiento de las personas trabajadoras. Han aumentado las desigualdades sociales, especialmente entre las mujeres*, la juventud y las personas trabajadoras migradas, y los beneficios de unos pocos se han situado por encima de las condiciones laborales y de vida de las y los trabajadores. La situación es fruto de decisiones políticas y empresariales; hay que repartir la riqueza de forma más justa. Tanto el Gobierno Vasco como el Gobierno de Nafarroa están llevando a cabo políticas públicas a favor de la patronal y obstaculizan las vías para el reparto de la riqueza: no se impulsa una política fiscal progresiva y no se interpela a la patronal para que mejore los salarios. También precarizan a sus empleadas y empleados públicos y personal subcontratados, siguiendo la estrategia capitalista de la patronal; por ejemplo, no se les garantiza el poder adquisitivo.

**Salarios dignos para todas y todos**
La vida se ha encarecido, pero los salarios no han

M17 GREBA OROKORRA

LAB
EUSKAL SINDIKALISMO ERALDATZAILEA

subido en la misma medida. En consecuencia, las personas trabajadoras hemos perdido poder adquisitivo. Entre 2013 y 2023 los beneficios de las empresas industriales han aumentado un 53,4% y el IPC un 24,4%, mientras que los salarios en general solo han aumentado un 16,9%. Las y los empleados públicos también hemos sufrido una pérdida de poder adquisitivo del 20% de media (de más de un 20% en la CAV y de más de un 19% en Nafarroa).

**Mejorar los salarios para impulsar al alza todos los salarios**

Ante el encarecimiento de la vida, además, el capital sigue ahondando en las brechas entre las personas trabajadoras, siendo la brecha salarial uno de los indicadores de ello y, en consecuencia, perpetuando a muchos trabajadores y trabajadoras en una situación de pobreza. Actualmente 307.000 personas trabajadoras y trabajadores cobran menos de 1.500 €; la mayoría son mujeres* y personas migradas.

El capitalismo es patriarcal y colonial, y, para seguir acumulando beneficios, crea brechas basadas en el género y el origen. También en la edad. El SMI es una herramienta para reducir estas brechas. Cuando sube el salario mínimo, todos los salarios suben, poniendo límites a la estrategia de la patronal de devaluar los salarios. Esta lucha debería conllevar también la equiparación salarial de las y los trabajadores de los servicios públicos privatizados, en el camino hacia la publificación. Ante la estrategia de la capital para dividir la clase trabajadora, nosotras y nosotros apostamos por la solidaridad de clase. Y es que, directa o indirectamente, la Huelga General será una huelga en beneficio de todas las personas trabajadoras.

**Un salario mínimo de 1.500€ para toda persona que trabaje para la administración pública**

Nosotras y nosotros defendemos el mismo salario por hacer el mismo trabajo y luchamos contra el debilitamiento de los servicios públicos, privatizaciones y precarizaciones que las administraciones promueven a través de la subcontratación para enriquecer a unos pocos. Por ello, toda aquella persona que trabaje para la administración pública debe recibir, al menos, un salario mínimo adecuado a la realidad de Euskal Herria, sea personal directo o no: para 2026, un salario bruto de 1.500 € en 14 pagas.

» En el ámbito subcontratado de la administración pública son muchas las personas trabajadora que cobran menos de 1.500€: en Centros Especiales de Empleo, limpieza, telemarketing, gimnasios, jardinería, gestión de aguas o consultoras.

**¡No más imposiciones ni recortes! Decidamos aquí los salarios**

Desde 2010 hemos conocido reducciones salariales, congelaciones e imposiciones en las administraciones públicas.

Las y los trabajadores públicos sabemos, sin embargo, que decidir aquí los salarios y las cuestiones relativas al empleo es una cuestión de voluntad política; por tanto, la nuestra es una reivindicación para decidir aquí lo relativo al salario y al empleo. No aceptaremos más bloqueos en las negociaciones de nuestros convenios colectivos. Esto también es una lucha para que el Gobierno Vasco y el Gobierno de Nafarroa dejen de imponer aquí las imposiciones de Madrid y consigan las competencias del salario mínimo, porque necesitamos una mayor soberanía para mejorar las condiciones de trabajo y de vida.

**¡Difunde el mensaje, organizate y participa!. ¡La fuerza está en la unidad de la clase trabajadora!**

# M17 GREBA OROKORRA

M17 GREBA OROKORRA

LAB
EUSKAL SINDIKALISMO ERALDATZAILEA